

UDALAK 2,1 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU BILBOKO OSTALARITZAREN ETA GAUEKO AISIAREN SEKTOREARENTZAKO ZUZENEKO LAGUNTZETARA

- **Proposamen berria alkatearen eta udal-ordezkaritza duten taldeen arteko bileran adostu da gaur, Covidaren ondorioei aurre egiteko Bilbao 2022 Planeko neurrien barruan.**
- **Laguntzak enplegatutako pertsonen kopuruaren arabera banatuko dira, eta Eusko Jaurlaritzak eskaintzen dituenekin batu ahal izango dira.**

(Bilbon, 2022ko martxoaren 30ean).- Bilboko Udalak **2,1 milioi euro** bideratuko ditu uriko **ostalaritzaren eta gaueko aisiaren sektorerako** zuzeneko laguntzetara, pandemiaren eragin handiena jasaten ari diren kolektiboak indartzen jarraitzeko helburuarekin. Bizkaiko Ostalaritza Elkartearekin aztertu ondoren, ekimena gaur adostu dute bilera batean Alkateak eta udal ordezkaritza duten talde politikoek (EAJ-PNV, PSE-EE, EH Bildu, Elkarrekin Podemos eta PP), Covidaren ondorioei aurre egiteko Bilbao 2022 Planean aurtengo ekitaldirako onartu diren neurrien harira.

Laguntzak Eusko Jaurlaritzak emandakoekin metatu ahal izango dira eta establezimendu motaren eta langile kopuruaren arabera banatuko dira:

II. Taldea (*):

1-3 langile: 1.000 €.
4-10 langile: 1.250 €
11 langiletik gora: 1.500€

III. TALDEA ():**

1-4 langile: 1.500 €.
5-10 langile: 2.000€
11 langiletik gora: 4.000 €

IV. TALDEA ():**

1-4 langile: 2.500€
5-10 langile: 4.500 €
11 langiletik gora: 6.000 €

() II. taldea: tabernak, jatetxeak... Itxiera-ordua 01:00etan.*

*(**) III. eta IV. taldeak: pubak, diskotekak, dantza-aretoak eta kafe-antzokiak. III. taldekoen itxiera-ordua 4:00etan eta IV. taldekoena 06:00etan.*

Laguntzak apirilaren amaieratik aurrera eskatu ahal izango dira, BAOan argitaratu eta biharamunean hasita. Epea 15 egun naturaletan irekita egongo da eta tramitazioa modu telematikoa egingo da bilbaoaurrera.eus estekaren bitartez.

EL AYUNTAMIENTO DESTINARÁ 2,1 MILLONES DE EUROS EN AYUDAS DIRECTAS AL SECTOR DE HOSTELERÍA Y OCIO NOCTURNO DE BILBAO

- La nueva propuesta ha sido consensuada hoy en la reunión del Alcalde con los grupos con representación municipal dentro de las medidas del Plan Bilbao 2022 contra los efectos del Covid.
- Las ayudas se distribuirán en función del número de personas empleadas y serán acumulables a las ofrecidas por el Gobierno Vasco.

(Bilbao, 30 de marzo de 2022).- El Ayuntamiento de Bilbao destinará **2,1 millones de euros** en ayudas directas destinadas al **sector de hostelería y ocio nocturno de la ciudad**, con el objetivo de seguir reforzando a los colectivos más afectados por la pandemia. Esta iniciativa, tras ser estudiada con la Asociación de Hostelería de Bizkaia, ha sido consensuada hoy en la reunión mantenida por el Alcalde con los grupos políticos con representación municipal (EAJ-PNV, PSE-EE, EH Bildu, Elkarrekin Podemos y PP), dentro del Plan Bilbao 2022 de Medidas Contra los Efectos del Covid, acordadas para el presente ejercicio.

Las ayudas, que podrán ser acumulables a las concedidas por el Gobierno Vasco, se distribuirán en función del tipo de establecimiento y número de empleos:

Grupo II (*):

De 1-3 personas trabajadoras: 1.000€.
De 4-10 personas trabajadoras: 1.250€
A partir de 11 personas trabajadoras: 1.500€

GRUPO III ():**

De 1-4 personas trabajadoras: 1.500€
De 5-10 personas trabajadoras: 2.000€
A partir de 11 personas trabajadoras: 4.000€

GRUPO IV ():**

De 1-4 personas trabajadoras: 2.500€
De 5-10 personas trabajadoras: 4.500€
A partir de 11 personas trabajadoras: 6.000€

(*) Grupo II: bares, restaurantes... Cierre hasta la 1h.

(**) Grupos III y IV: pubs, discotecas, salas de baile y cafés-teatro. Grupo III cierre a las 4h. Grupo IV a las 6h.

Las ayudas podrán empezar a solicitarse a finales del mes de abril, al día siguiente de su publicación en el BOB. El plazo estará abierto durante 15 días naturales y la tramitación se hará de forma telemática, a través del enlace bilbaoaurrera.eus.